



## **Oharra, doktore tituluaren nazioarteko aipamenerako egonaldiari buruzkoa**

---

Urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak, doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituenak, 15. artikuluan doktore tituluaren nazioarteko aipamena jasotzen du, eta 1.a) atalean honakoa dio nazioarteko egonaldiei buruz:

*“Que, durante el periodo de formación necesario para la obtención del título de Doctor, el doctorando haya realizado una estancia mínima de tres meses fuera de España en una institución de enseñanza superior o centro de investigación de prestigio, cursando estudios o realizando trabajos de investigación. La estancia y las actividades han de ser avaladas por el Director y autorizadas por la Comisión académica, y se incorporarán al documento de actividades del doctorando.”*

Errege dekretu horrek doktorego ikasketen iraupena ere zehazten du (3.2 artikulua) eta honakoa dio:

*“La duración de los estudios de doctorado será de un máximo de tres años, a tiempo completo, a contar desde la admisión del doctorando al programa hasta la presentación de la tesis doctoral.*

*No obstante lo anterior, y previa autorización de la comisión académica responsable del programa, podrán realizarse estudios de doctorado a tiempo parcial. En este caso tales estudios podrán tener una duración máxima de cinco años desde la admisión al programa hasta la presentación de la tesis doctoral.*

*Si transcurrido el citado plazo de tres años no se hubiera presentado la solicitud de depósito de la tesis, la comisión responsable del programa podrá autorizar la prórroga de este plazo por un año más, que excepcionalmente podría ampliarse por otro año adicional, en las condiciones que se hayan establecido en el correspondiente programa de doctorado. En el caso de estudios a tiempo parcial la prórroga podrá autorizarse por dos años más que, asimismo, excepcionalmente, podría ampliarse por otro año adicional.”*

COVID-19k eragindako pandemiaren ondorioz, askok bertan behera utzi dute egonaldia araudiak zehaztutako hiru hilabeteak osatu gabe, eta beste batzuek ezin izan dute hasi, eta gerora ere ezin izango dute hasi, bukatuta izango baitute ikasketa aldia.

Egoera hori ikusita, Doktorego Eskoletako Zuzendarien Batzarrak Unibertsitateen Ministerioarekin hitz egin du, Unibertsitateko Titulu eta Ikasketen Gestio, Antolamendu eta Jarraipenerako Azpizuzendaritza Nagusiarekin, hain zuzen ere.

Ministerioak, egoera eta araudia aztertu ondoren, ondorio hauek plazaratu ditu:

*“El artículo 15 del Real Decreto 99/2011, de 25 de enero, por el que se regulan las enseñanzas oficiales de doctorado, establece el requisito de realización de una estancia mínima de tres meses fuera de España para la obtención de la Mención Internacional en el título de Doctor. De su redacción literal se desprende que la estancia debe ser presencial, implicando, por tanto, un desplazamiento del doctorando al país y a la institución docente o de investigación de que se trate.”*

*“Asimismo, el citado artículo, atribuye a la Comisión Académica del programa la autorización de la estancia y actividades a realizar”*

*“La anterior atribución es una manifestación más de la importancia que el real decreto regulador otorga a las Comisiones Académicas de los programas, en orden a su organización, diseño y coordinación, así como en la responsabilidad de sus actividades de formación e investigación.”*



*"la propia Comisión Académica del programa de doctorado de que se trate tiene competencia para valorar, y en su caso autorizar, **las estancias virtuales** propuestas en cada caso por las universidades extranjeras de acogida de tal forma que se permita el cumplimiento del requisito de realización de actividades en las instituciones docentes o de investigación extranjeras, tanto a los doctorandos que debieron interrumpir su estancia regresando a nuestro país, como a aquellos que no han podido iniciarla por las limitaciones y dificultades de los desplazamientos, **antes de que se agote el plazo máximo de permanencia en el programa de doctorado.**"*

Ministerioak adierazitako gauzarik garrantzitsuena da egonaldi birtualak egiteko baimena eman ahal izateko, ezinbestekoa izango dela aukera izatea doktoregoko programak gehienez iraun dezakeen epearen barruan egonaldia egiteko, eta programako batzorde akademikoak baimena ematea.

Hori guztia kontuan hartuta, UPV/EHUK adierazi nahi du egonaldi birtuala eginez gero, ondorengo agiriak aurkeztu beharko direla nazioarteko doktore aipamena lortzeko aurkeztu behar direnez gain:

- 1.- Atzerriko erakundearen ziurtagiria, arduradunak sinatua eta zehaztuta zein jardura ez-presentzial egin diren.
- 2.- Doktorego programako batzorde akademikoak egonaldi birtuala egiteko emandako baimena, arrazoituta egonaldia ezin izan dela modu presentzialean egin doktoregoko ikasketak bukatu aurretik.